

Langile jaun-andreak

ELIXABETE GARMENDIA



LANEAN asper-izen direnek gaixotzeko joera haundiagoa azaltzen omen dute. Egunkarian irakurri eta zeure

egiten duzun berri horietakoa gertatu zait hau, aspaldioko susmoa baieztatzen duelako. Zorionez, gutxitan suertatu izan zait lanean aspertzea, baina noizbait hori somatu izan dudanean, munduko zigorrak haundienta-kotzat sentitu dut. Lana gustokoa izan arren, lanak egoien dira gero astelero goizean nagiak kendu eta eguna tajuz zuzentzen. Egoera horretan, behin baino gehiagotan gogoratu izan naiz goizeko zazpi terdianetako hotz batera sartu eta aste gutzirik solaskide nagusitza makinaren zarata dutenekin. Egia da norberak gauza nola hartzen duen, horretan dagoela kakoa nerri batean. Autopistako peaje kobratzaileekin frogatzen dut hori egunero. Badira egunona benetan opa dizutenak, munduarekin adiskidetzen zaituzten horietakoak eta bada, prezio berean, aurpegia begiratu eta diozunik, darioala daraman beazunak ez zaitzan zipiritzindua.

Norberaren esku dago beraz, nerri batean, lana maldizio gisa edo gutxienez umore pixka batekin hartzea. Baina ez da hori bakarrik, ez. Lan katearen barruan daukazu eskuartzeak eta aintzat hartzen zaituzten ala ez, horrek badu eraginik lanarekiko norberaren jarreran. Horregatik, hemengo enpresarietari gauzak ondo egiteko ilusioa berreskuratu beharrean gaudela entuzten didean, galdetzen diot nere buruari ilusio hori piztearren zer egiteko prest ote dauden, informazio eta eskumen gehixeago ematea langileei, adibidez, edo —edo— Arriortuari jarraiki, «langile jaun-andre»-ka hasiko ote diren besterik gabe.

Erljioa

MIKEL ARAMENDI



ABERRI Eguna, sortzeko Bazko Egune-
tik beste inora eramateko
kinadarik ere egin ez du-
guneko herri honetan,

jende askotok espantuz bezala begiratzen dit esaten diodanean (esaldia gordinduz, aitor dezadan, epatatzeko gehiegixto gustatzen zait) Balkanetako gerra, funts-funtsean eta garuz behintzat, erlijio gerra dela. Hain eruz manejatzen diren beste adjetibo (etnikoa, nazionalista) horien barrenean nik behintzat erlijio ia beste elementu sustantiborik ez ez dudala topatzen guduari ari diren arteko jazarriak ulertzeko. Sustriai erlijioso horrek naziotasunarekin duen elkartrabamendua argitzea luze joan daiteke, baina gakoa hor dago eta baita datuak ere.

Beste zenbaitzuri gerra hori Europan ematen ari dela aitortzea nabarmen maldan gora egiten zaien bezalatsu, nire tartediko hauei onargaitza gertatzen zaie nonbait erlijioek XX mendearren azkeneko gizarke europar honetan gerrak girotzeko adinako hasia badutenaren ideia. Gizarke posmodernoa honetan gudu-sortzaile izateko kamutsegia ikusten dutelako munduaren historian giza-kien arteko burruka-motibo gehien eman duen zio ideologikoa, hau da, erlijioa eta haren inguruko bizimolde erritual eta kulturala? Edota ia erlijio gutzietan duten azaleko mezu anaikorra ekumenikoa nolabait esateko, bakarrik hartzen dutelako haintza eta ez askotan erlijio berriei harten duten traza totalitario eta biziro intransigentea? Ez dakit.

Dakidana da tesi honek desosegatu egiten dituela nire adiskide askotxo. Eta ni desosegatu egiten nauela baihen desosegatu.

ABC

'Egin' eta adierazpen askatasuna

'ABC' eta 'Egin' Euskal Herriko egunkariaren artean leize handi bat dago desberdintasun ideologikoari dagokionez. Baina adierazpen askatasunaren alde ala adierazpen askatasunaren aurka egotea da kontua. Adierazpen askatasunaren —demokrazia pluralistaren giltzarria— alde egonez gero, hori bere ondorio gutzietan eutsi behar zaio. Espainiako herriaren zatirik handiandienak bere babesa ematen dio Konstituzioak finkatzen duen Monarkia parlamentarioari, baina adierazpen askatasunaren errepublikaren alde dauden gutxiengoz nimitxoek beren ideak argitaratzeko informazio organoak eduki ahal izatea exigitzen du. Oso gutxi dira Espainiako erregioren baten independentzia defenditzea baino handiagoak izan daitezkeen zentzugabekeriak, bai arrazoiz historikoengatik bai Europa baturanzko bide geldiezinaren errealitatearengatik. Baina hala jokatzen duten taldeetoei eskubidea dute askatasunez beren iritziak emateko. Kostatu egi-

ten zaigu sinestea iritzi bat delituztat har daitekeela eta horregatik norbait kondena bat ezar daiokeela, iritzi hori 'Egin-en' edo 'Ya-n' agertuagatik ere. Monarkia Konstituzionala denona da, baita 'Egin-en' idazten dutenena ere. Demokraziak gutziak babesten ditu, baita beroretan sinesten ez dutenak ere. Jakina, kazetariak ez dira zigorrak jasotzen ez duten herritarrek. Legea hausten badute, Justiziaren zama gutziak beren gainean erori behar du. Baina iritziak aukerazkoak dira eta ezin da horienagatik inor zigortu.

EDITORIALA

LAVANGUARDIA

'Big bang' sozialista

Michel Rocard Frantziako lehen ministro sozialista ohi eta lehendakari zarako hautagaia proposatutako 'big bang-a' bere bidea egiten hasi da, hain zuzen bilatutakoaren aurkako norabidean. Rocardek, azken legegintza hauteskundeetan sozialistek jasandako oso porrot nabarmenetik aurreratz hainbat ikasbide ateratu dituenak, etorkizunari begira ezkerre birsortzeko proiektua plazaratu zuen, horretan sozialistak, ekologistak eta komunistak bertzaileak bilduz. Hala ere, are Ro-



ZULET/EL DIARIO VASCO

cardi berari ere Asanblea Nazionalean zeukan aukia kendu zion porroterik apenas asetebe iragan denean, sozialistek, izan litzaketen aliatuekin biltzearen aurrera egiteko asmoaren inolako zantzurik ez azaltzeaz gain, zatiketa dramatikoak izan dute.

Baina sozialistentzat larria den zatiketa honen eragina ez dagokion bakarrik ezkerrean edo Rocarden beraren etorkizunerako planeri; izan ere, lehendakari zarte azken horren nahia bere planak aldeztari berretarek emandako eztearren mehatua jasan dezake. Hasteko, sozialisten zatiketa eta ahultasunaren eragina batez ere Frantziak jasango du. Gaullisten eta zentristen erabateko garapenak —batez ere eskainu kopuruari dagokionez— kasik zeharo ezabatu ditu mapatik sozialistak. Orain, zentroskuinak Gobernuak, botere legegilea eta udalako botere zati han-

diena bere kontrolpean ditu. Horregatik, sozialistek berek botoa eskatu bazuten bigarren itzulian beren uestez kontserbadoreen garapena gehiegizko zelako, beren egungo zatiketak iskurio itxur hartzen du. Beren barnekerela Frantzia ia oposizioz gabe uzten du, eta horrek zalantza elementu berri bat erantsiko dio Gobernu kontserbadore-liberal eta Francois Mitterrand lehendakariaren arteko kohabitazioari. Hau, oraingo, zatiketa sozialistaren aurreneko ondorioa da. Eta Rocarden eta Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariaren artean lehendakari zarte lortzeko borroka zuriak gaizkoak izateko mehatxu egiten du. Birekitalizari buruzko eztabaidaren onarria izan beharko lukeen 'big bang' proiektua, orain, porroteraren ondoren kontu garbiketa bat besterik ez da.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Juan Jose Goiriarena

Euskal Herriko Unibertsitate euskalduna guretzat kezka handia izaki, ondoko lerro hauetan, EHUko Errektore zaren horri, euskal gizarke osoarena, eta beronen goi-eredu nahi dugun Unibertsitate horren etorkizunaz gure kezka batzuk apal eta leialki agertu nahi dizkizugu.

Ezaguna denez, EHUko zenbait irakasle kale gorrian dago, kontratu-mota jakin bat tarteko dela. Errektoretzako eta irakasle kaleratuen arteko kide batzuen arteko eztabaida egunkarietan jarraitzeko aukera izan dugularik, agerian dugu hainbat arazoibide, eta baita aurrera egiteko aipatzen den hainbat zailtasun ere.

Unibertsitate barmean ez gauden askok, interes handienarekin begiratu izan dugu EHUren garapen —eta aldakuntza— proiektua: bide nekeza baina itxaropenez bete. Izan

ere, beregaitasunez, erbesteiko agintzetatik aske eta erakunde politikoetatik ahalik autonomiarik handienarekin jaso eta gidatuko litzaketen Unibertsitate baten ametsa, beste amitez bezala, guk ere bizirik izan dugu. Bizi bizirik dugun bezala gizarkeari tolerantziaren eta elkarriketaren bide-erakuse izangon den Unibertsitate baten esperantza.

Aurrera egiteko lan astunak falta bazezki-gu ere, ez dugu pentsatu nahi xede zabal eta emankor hori jada alferrikako gogo galdua denik. Seguru baikaude Erakunde horren barmen aski indar topa litekeela halako helburu bikaina iristeko ahalegimetan inhariduteko.

Testuinguru horretan ulertzen dugu betiko kanporatuta gertzeko arriskutan dabilzaten irakasleen ahalegina ere: giza indar horiek Unibertsitate barruan egon beharko luketela uste dugu, beriz ere xede haiek lortzen saiatzeko.

Beraz, merezi duzuen itzal gutziarekin zuri

eta zure errektoretza-taldeari xede haierarako bideak beriz ere urratzen haseta eskutako gizenueke, gure Unibertsitate zinekio autonomia osoa erabili dezaten, beste Unibertsitate baten batek jadanik irekitako ildotik, indarrean dauden balibide juridiko gutzietz baliatuz, eta legearen barmen premiarioz aldakuntzak ere bultzatuz.

Erregru hori utzi nahiko genuke zure eta lankideen eskuetan: emazioze lehenbailehen, arren, itrenbiderik ahalik itxurazkoena irakasleon gerorari.

Hauke da aditzera emanda utzi nahi genienazuna, Erakunde horren gobernuan arrakastarik onena opa dizugun une barmen.

Adeitasunez

PAULO IZTUETA
JOSEBA INTXAUSTI
JOXE AZURMENDI
ALFONTSO MUJKA


GAIA JARRITA



Txiki Benegas

Telefonotik mintzatu zenak orain egin dio karta, alde batetik 'Jaungoikoa' da bertetik Txikii ausarta. Ferraz-enean batakat bertzea elkar joka zirti-zarta, 'Guerra' tartearen dutela biak gerra aizkora altxata, nork nori moztu ile kalparra? Bada aski zalaparta!

MIKEL TABERNA 'KAPI'



Bat: 2016 / Egunkaria, 55.800/90

ODREN KUSKATZEA BIDERATUA
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseiluko Editoreleko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDA
Gereitea: FERMIN LAZKANO
Zuzendaria: INAKI URJA
Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZAHARRETA
Zuzendari Komertziala: JUAN INAZO HARTSUCAGA
Sustapena: NEREA AZURMENDI
Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK
Erredakzio eta Taldeare: ANITZA S.A. Industrialdea 01-02 / Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Arabara: San Antonio, 20-1. ezker / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroara: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruña / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77
Bizkaiara: Barroeta Aldamar, 2-1 eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / ☎ 39 59 35 75 / Faxa: 39 25 11